



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/12/10

Batzar Nagusiek aho batez eskatu deutsie Eusko Jaurlaritzari La Orconerako, Sefanitroko eta Barakaldoko Franco-belgako zamalekuak Ondasun Kultural izendau daizala

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura Batzordeak aho batez onetsi dau gaur goizean, martxan jarrita dagozan prozedurak “ahalik eta arinen” amaitu eta Eusko Jaurlaritzari La Orconerako, Sefanitroko eta Barakaldoko Franco-belgako zamalekuak Ondasun Kulturaltzat, Monumentu Multzo kategoriagaz, izendau daizala, “gure industria ondarean interes gehien daukan moltsoetako bat dalako”.

Talde guztiak, Talde Mistoak aurkeztu dauen ekimenak Eusko Jaurlaritzari gaia “gogoratuazoteko” balio izatearen alde agertu dira.

Modu berean, Bizkaiko Batzar Nagusiek Talde Mistoak aurkeztutako beste arauz besteko proposamen bat onetsi dabe. Bertan, Foru Aldundiari eskaria egiten joko, interesauta egon daitekezan administrazioakaz eta erakunde publikoakaz eta pribaduakaz batera, “Bizkaiaren eta Bizkaiko erakundeen historiaren zabalkundea egiteko eta daben balioa erakusteko estrategia eta ekintzak aztertu eta garatu daizan, gaur egun dagozan teknologia barriak eta ikus-entzunezkoak baliatuta”.

Proposamena aurkeztu dauen taldeko bozeroalea dan Arturo Aldecoaren berbetan, behar “politiko eta kultural” horrek “personak bertako historian eta tradizioetan sustraitzea” bilatzen dau. Talde Popularrak egin dauen moduan, Foru Gobernua eusten daben taldeak be proposamenaren alde agertu dira.

Marimar Rodríguez batzordekide sozialistaren eretziz, proposamena ez dago bakarrik historia balioan jartera eta ezagutuazotera bideratuta, baita hori modernizetera be. Euzko Abertzaleak Taldearen izenean, Alfredo Oleak esan dau “Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, azkenengo urteetan, ahalegin handia egin dabela gure historia ezagutuazoten eta zabaltzen”. Bere berbetan, “gertakari historikoz betetako” historia da, eta herritarren esku jarri behar da, “mundura zabaldik dagon leiho moduan”.

EH Bildu eta Podemos taldeek, “errelatu bat baino gehiago” dagola azpimarratu dabe; holan, Josean Elguezabal Podemos taldeko batzordekideak, Batzar Nagusien barruan Bizkaiko oroimen historikoari buruzko eztabaidea egiteko aukerea planteau dau. Modu berean, Joseba Gezuraga EH Bilduko batzordekideak zalantzak agertu ditu proposamenaren aurrean, “neutroa” dala esanez.

GEV IZENEKOAREN ARTXIBO DOKUMENTALAK

Saioak Lorea Bilbao Euskera eta Kultura Diputatuaren agerraldia be jaso dau. Talde Mistoak eskatuta, joan dan urrian Foru Artxibategian itzi ziran Grupo Espeleológico Vizcaíno (GEV) izenekoaren dokumentuak eta artxibategiak antolatzeke eta katalogetako beharrak bultzatzeko bere Sailak aurrera eroango dituan erespideak eta strategiak azaldu ditu. Horri jagokonez, Bilbaok argitu dauenez, une honetan artxiboak “egoera onean eta

ordenauta” dagoz, eta aurreratu dauenez, 2019ko martirako dokumentazino guztia barru hartuko dauen katalogoa egitea daukie aurreikusita, edozeinek kontsultau ahal izateko. Batzarretako talde guztiek ondo hartu dabe albiste hori.

PALANKA JAURTIKETA KIROLAREN BIZKAIKO MEMORIA ETA PRAKTIKEA BERRESKURATZEA

Eguneko gai zerrendea, Talde Mistoak aurkeztu dauen azkenengo arauz besteko proposamenaren eztabaidagaz eta ez onartzeagaz amaitu da. Proposamen horretan Euskal barra edo palanka jaurtiketa kirolaren Bizkaiko memoria eta praktikea berreskuratu daiten beharrezkoak diran estrategiak aztertzeko eta aurrera eroateko eskatzen jakon Foru Aldundiari.

Talde Mistoarenak aparte EH Bilduren eta Talde Popularraren aldeko botoak jaso dituan arren, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek lan hori daborduko Euskal Atletismo Federazioak egiten dauela adierazo dabe. Horrez gain, José Ángel Basauri batzordekide jeltzaleak igaz Hernanin modalidade horretako lehiaketa bat egin zala esan dau.

NOTA DE PRENSA

10/12/18

Las Juntas Generales solicitan unánimemente al Gobierno Vasco que declare como Bien Cultural los cargaderos de la Orconera, de Sefanitro y la Franco-belga en Barakaldo

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana por unanimidad solicitar al Gobierno Vasco que finalice “cuanto antes” los procedimientos puestos en marcha y declare como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental estos cargaderos de La Orconera, Sefanitro y la Francobelga en Barakaldo, “como uno de los conjuntos de mayor interés de nuestro patrimonio industrial”.

Todos los grupos junteros se han mostrado favorables a que la iniciativa presentada por el Grupo Mixto sirva de “recordatorio” para el Gobierno Vasco.

De igual manera, las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado una segunda proposición no de norma presentada por el Grupo Mixto, en la que instan a la Diputación Foral de Bizkaia a estudiar y desarrollar, junto a las administraciones y entidades públicas y privadas interesadas, “una estrategia y actuaciones para la difusión y puesta en valor de la historia de Bizkaia y de sus instituciones, aprovechando las nuevas tecnologías y los medios audiovisuales actuales”.

Un trabajo “político y cultural” que, según el portavoz del grupo proponente, Arturo Aldecoa, busca un “efecto de enraizamiento de las personas con su historia y sus tradiciones”. Al igual que el Grupo Popular, los grupos que sustentan al Gobierno foral también se han mostrado favorables a la propuesta.

Para la apoderada socialista, Marimar Rodríguez, la propuesta está encaminada no solo hacia la puesta en valor y difusión de la historia, sino también a la modernización de la misma. En representación del Grupo Nacionalistas Vascos, Alfredo Olea, ha apuntado que “tanto el Gobierno Vasco como las Diputaciones Forales han puesto, en los últimos años, empeño en dar a conocer nuestra historia y divulgarla”. Una historia, a su entender, “plagada de hitos históricos” que debe ponerse a disposición de la población “como una ventana al mundo”.

Tanto el grupo EH Bildu como Podemos han subrayado la existencia de “diversos relatos”; en este sentido el apoderado de Podemos, Josean Elguezbal, ha abierto la puerta a un debate sobre memoria histórica de Bizkaia en el seno de las Juntas Generales. De igual manera, el juntero de EH Bildu Joseba Gezuaraga ha trasladado sus dudas sobre la propuesta tildándola de “neutra”.

ARCHIVOS DOCUMENTALES DEL GEV

La sesión también ha contado con la presencia de la Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, quién a petición del Grupo Mixto ha detallado los criterios y estrategias que va a seguir su Departamento para impulsar los trabajos de ordenación y catalogación de los archivos documentales del Grupo Espeleológico Vizcaíno (GEV), entregados en el

Archivo Foral el pasado mes de octubre. En este sentido, Bilbao ha aclarado que actualmente los archivos se encuentran “en buen estado y ordenados” y ha avanzado que para marzo de 2019 tienen previsto elaborar un catálogo que integre toda la documentación con el fin de ponerlo a disposición de consulta. Una noticia que todos los grupos junteros han acogido con favorablemente.

RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA Y PRÁCTICA DEL LANZAMIENTO DE PALANKA

El orden del día ha finalizado con el debate y posterior rechazo de una última proposición no de norma presentada por el Grupo Mixto. En ella se instaba a la Diputación Foral a estudiar y desarrollar las estrategias necesarias para la recuperación de la memoria y la práctica en Bizkaia del deporte de lanzamiento de palanca (palanka).

A pesar de contar con el apoyo de los grupos EH Bildu y Grupo Popular, además del propio Grupo Mixto, los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han manifestado que esta labor ya la realiza la Federación Vasca de Atletismo. Asimismo, el apoderado nacionalista José Ángel Basauri ha apuntado que el pasado año ya tuvo lugar una competición de esta modalidad en Hernani.